

OSO GUNEKO ERAKASKERA
1998-99ko IKHAS-URTHERA.

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS. GAIA.

1. Norik ebatsi zion Errekondori zaldia? Noriz?
2. Nuen atxeman zuen bere zaldia. Eta zer aurkitu?
3. Zer amarru oldoztu zuen eskuratzeke zaldia?

①

ERREKONDO-REN ZALDIA

Gau batez norbaitek Errekondori ebatsi zion barrukian zuen zaldirik hoberena.

Errekondok deliberatu zuen bertze bat erosiko zuela, eta hortarako, joan zen Garruzeko feirierat.

Ez zen guti harritu, han salgai ziren zaldien artean, berea ezagutu zuelarik.

Kraxturutik hartu zuen berehala, oihuka hasiz:

—Zaldi hau enea da! Joan den igande arratsean ebatsi dautet.

Kabalea horrat saltzeko creman zuen gizonak ihardetsi zion polliki Errekondori:

—Tronpatzen zira, adixkidea! Zaldi hau, urtea baino gehiago badu an dudala, Nabarregosen erosirik. Baditake ebatsi dautzutenaren eite baduen; bainan zinzinez enea da.

Errekondok berehala bi eskuak eman zituen alimalearen begien gainean, erranez:

—Orizu, urte huntan zaldi hau etxen balinbaduzu, pretenitzen duzunaz, erradazu, otoi zoin begitarik okerra den.

Makiñuna, zaldiaren ohoina baitzen, eta ez oraino haren begieri ohartua, izitu zen galde hortaz. Bainan zerbait ihardetsi behar baitzuen, huts ala kausi jalgi zuen tarrapataka:

—Ezkerretik.

—Ez, jauna, ihardoki zion Errekondok. Zaldia ez da begi ezkerretik oker.

—Egia! erran zuen orduan ohoinak, tronpatu naiz. Eskuinetik da okertua.

Zaldiaren jabeak, eskuak kenduz, agertu zituen alimalearen begiak:

—Orai ez da dudarik ohoin eta gezurti zirela. Beha zazue, hemen inurruan lekuko zirezten guziek: zaldi hau ez da batere okerra. Amarru i pentsatu nuen, ohoina bere ahotik gal zedin.

Lekukoak irriz hasi ziren, erranez:

—Merexi! merexi!

Errekondok bere zaldia gibelerat eskuratu zuen eta makiñuna ongi gaztigatua izan zen.

③ ADITZ IKASKUNTZA

31. Ebatsi zion. - 32. Ebatsi dautet.

33. Baditake. 34. Erradazu.

35. Gal zedin.

31. UKAN. Conj. à dble Cpt. Indic. Imparfait.

C. D. S Hari = à lui C. I. D. S

Nik mioz = nakon = nichan = je le lui avais

Zuk zinion = zinakon = ziniskan = vs le lui aviez

Harek zion = zakon = zikan = il le lui avait

Guk ginion = ginakon = giniskan = ns le lui avions

Zuek zinoten = zinakoten = zinikakoten = vs le lui aviez

Heiek zitoten = zikakoten = zikanakoten = ils le lui avaient

32. UKAN. Conj. à dble cplt - Indic. Present -

C. I. S Neri = à moi C. I. S

Zuk dautazu = Vous me l'avez

Harek daut = Il me l'a

Zuek dautazue = Vous me l'avez

Heiek dautate (dautet) = Ils me l'ont

Igoritzen dautazu = Vous me l'envoyez

C. D. S Zuri = à vous C. I. S

Nik dauzat = Je vous l'ai

Harek dauzu = Il vous l'a

Guk dauzugu = Nous vous l'avons

Heiek dauzute = Ils vous l'ont

Emaiten dauzugu = nous vous le donnons

33. IZAN. Potentiel.

Présent

Ni izan naiteke (nitate) = je peux être

Hi - " - haiteke = tu peux être

Zu - " - zaitezke = vs pouvez être

Hura - " - daiteke (daitake) = il peut être

Gue - " - gaitezke = nous pouvons être

Zuek - " - zaitezkete = vous pouvez être

Heiek - " - daitezke = ils peuvent être

Imparfait

Ni izan naiten = je pourrais être

Hi - " - haiten = tu pourrais être

Zu - " - zaitezken = vs pourriez être

Hura - " - daiten = il pourrait être

Gue - " - gaitezken = nous pourrions être

Zuek - " - zaitezkenen = vous pourriez être

Heiek - " - daiten = ils pourraient être